



ALFONSO IRIGOIEN
(1929-1996)

Egilea:

XABIER KALTZAKORTA

HAURTZAROA

Alfonso Irigoien 1929ko azaroaren 14an jaio zen, eta hil, 1996 urteko abenduaren 16an. Datu hauek euskaltzale eta euskalari handi baten mugarri ez ezik, artista baten arnasa hesitzen duten noraezeko bi data ere badira. Jaio eta hil hiriburu berean egin zuen, Bilbon. Heriotza ustekabekoa izan zuen, ebakuntza baten ondoren, erietxean etxerako prestatzen ari zela, tronbosi bat izan bide zuen. Heriotza-lekua, askotan behintzat, ez dago aukeratzetik, jaiotza bestek aukeratzen dute gugatik. Alfonso bilbotar peto-petoa izan genuen. Bilbon jaio, Deustuan irakasle hainbat urtez eta Bilbon bertan hil. Honela dio berak bere *Sorterriaren alde* liburuan (10 or.): «Bilbon jaio nintzen 1929garren urteko azaroaren 14an eta horregatik ez dut errurik batere. Berriz jaio behar balitz eta non jaio nahi nukeen galdetuko balidate, naizen berbera izan nadin eskatuko nuke, naizena izateak izan dituen eta dituen alderdi on eta txar guztiekin, sufritu dudan guztiarekin eta izan dudan zorionarekin, zoriona ere dastatu izan baitut inoiz, beti izan ez bada ere».



Alfonso Irigoien, 1929-1996

Alfonso bilbotarra bazen ere, Bilbon jaiotako hainbat euskaldunen antzera, gurasoak euskaldunak zituen. Ama bizkaitarra zuen, Arratiako Areatzakoa, eta, aita, oster, Debakoa, Elorriaga bailarakoa. Umetan, udaldiren bat edo beste, Alfonsok aitaren baserrian, Debako Elorriaga bailarako Lopertzan, igaro zuen. Gerrako momenturik latzenetan Amaren partetik Areatzako Upara erdiko baserrian pasatu bide zituen denboraldi batzuk. *Herrian gara bizi* bere olerki-liburuko «Uparan» hamalaukoa, garai honetako oroitzapen eta lehenminez oratua dugu. *Orbel eta orri* hamalauko-liburuan, era berean, «Uparandik Bilbora» poeman ere, anai arteko gerrako gomutak berpizten ditu. Hona hemen garai honezaz autobiografian dioena (20 or.): «Gerrako momenturik latzenetan Billaron eta gero Bilbon izan nintzen urte gutxi nituela oraindik. Ene ama jaio zen Billaroko Uparan erdiko baserritik Gorbeia inguruetako edo urrunagoko kañoi hotsak entzuten genituen. Ni nengoen baserrian Billaro hiriko zenbait jende ere izan zen momentu batzuetan, leku izkutuan zegoelako edo. Noizean behin gerrako gizon bat edo beste ere agertzen zen zerbait jatera eta ez zitzaion ukatzen».

Umetako hizkera, beraz, batez ere Arratiakoa izan zuen. Bere hizkeraz argigarri hauek idatzi zituen Alfonsok (*Sorterriaren Alde* 18 or.): «Nik neuk, ordea, ez dakit orain nongoa egiten dudana, harrezkero Euskal Herri osoa korritu baitut euskaldunen artean ibilirik, baina ezkondu nintzenetik hona Aulestikoa eta zerbait, oso gutxi, Lekeitiokoa kutsatzen zait, batez ere luzaro handik kanpokoekin ez nabilenean. Hala ere Arratiakoa dudala uste dut barreneko sakonen sarturik eta horregatik ez naiz lotsatzen (...)».



Sorterriaren alde, bere autobiografia, eta olerki-bildumak

GAZTAROA ETA GEROKOAK

Gerra osteko garai zailetan, Alfonso gazteak hamalau urte artean betetzeko zituela, lanean hasi behar izan zuen. Garai haiek bizi ez dituenak lanak ditu sinestea ere zer nolako kondizio gogorren azpian zeuden gerraostean lanean ari ziren gazteak. Alfonsori, lanean gazterik hasi arren, ez zitzaion itzali ikasteko gogoia, eta lanera abiatu aurretik Matematikak eta Fisika ikasteko eskola batzuetara joaten zen. Kontabilitatea ikasi ondoren, sail horretan lanean ere jardun zuen, 1947an, hemezortzi urte zituela, baina 1954an utzi zuen bere gogoko ez zuen lanbide hori. Garai hartan Euskaltzaindiko egoitzara,




Txomin Peillen euskaltzain oso izendatzean

Erribera kalekora, maiz egiten zituen joan-etorriak eta Azkuerekin ere solastatzen zen. Lekeitioko maisu erraldoia, euskararen langilerik handiena, artean zahartua zen eta burua ere galdukea bide zuen. Azkue 1951. urtean hil zen, ibaira erori eta laster. Azkue hil ondorenean Alfonso Euskaltzaindiko langile gisa hasi zen 1955ean, eta 1957ko uztailean euskaltzain urgazle izendatu zuten. Garai hartan ezagutu zituen gerraostean hainbat lan egindako euskaltzaleak Eusebio Erkiaga, Federiko Krutwig, Jon Etxaide eta abar. Euskaltzaindiko orduko egoitzan euskarazko eskolak eman zituen Xabier Peña, Goenaga eta Eusebio Erkiagarekin batera. Nazario Oleagaren laguntzaile ere izan zen, *Euskera* aldizkariaren idazkaritza-lanak eginez. 1956tik 1971 arteko epean, beraz, Akademiako *Euskera* aldizkariaren idazkari-lanak egin zituen, Nazario Oleagaren heriotzaz gero, 1963tik aurrera bigarren idazkari zela, eta 1966an idazkari orde izendatu zen. Euskaltzaindiko aldizkari ofizialaren, *Euskera*-rena hain zuzen, zuzendaria izan zen hamabost urtean. Euskara kontuetan autodidakta izan zela esan dezakegu, berak eskuera zuen Azkueren bibliotekako irakurle eta aztertzaile aspergaitza izan zen. Garai honetan *Euskera*-n argitara

zituen lan miragarriak hauexek dira: «Aportaciones al diccionario vasco» (1956), «Cartas de Mariano Mendigacha a Don Resurrección María de Azkue, escritas en roncalés y castellano» (1957), «Del epistolario de Azkue» (1957), «Berbak eta izkuntza» (1959), Aita Mokoroarekin batera «Sermones manuscritos antiguos, Fr. Francisco Tristán de Huandurruga (1822), Fr. Juan de Ajuria (1800) (1806)» (1956), eta batez ere gerora argiago agertuko zuen ikerlari-sen handia eta begi zorrotza erakusten duen artikulu bikain bat:

«Curiosidades y observaciones sobre el dialecto vizcaíno literario» (1958). Uste dut artikulu honetan hasten dela Alfonsoren benetako filologia-lana. 1966an argitaratu zen *Refranes y Sentencias* liburuko errefracuak aztertzen ditu batez ere. Handik hogei eta hamazortzi urtera, 1996an, Durangon, errefracu-liburu bera gai zuela emango zuen azkeneko hitzaldia. Ordukoak dira, era berean, Lardizabalen *Testamentu Berriko Kondaira edo Historia* (Bilbao, 1957) liburuko edizio eta hitzaurrea eta *Euskal kantak* (Bilbao, 1959 eta 1960) bilduma ttipia.

Euskera aldizkarian bestelako lanak ere argitara zituen, hona beraren hitzak *Sorterriaren alde* (47 or.): «*Euskera* aldizkaria 1971garren urterarte saiatu nintzen ateratzen zuzendari bezala. Zenbait artikulu ere argitaratuak ditut bertan. *Berriak* lehenik eta gero *Berriak eta gai laburrak* sailean firma gabe daudenak oro neuk eginak dira eta inoiz A. I. ipini nuen. Bertan agertzen da sortu genituen literatura sarien berri, aurren euskal esamenen eta sari emateen berri eta bestelako ekintzen berri».



1996ko abenduaren 6ko hitzaldian

Euskalaritzako gai hauez gainera, beste era bateko lanak, literatura eta iritzi-lanak argitara eman zituen *Egan* eta *Anaitasuna* aldizkarietan ere. *Egan* aldizkariko artikuluak 1955 urtean abioa harturik 1964 urtera artekoak dira. Iritzi, erreseina, berri-emate eta olerkiak argitara zituen batez ere *Munduz-mundu* epigrafearen azpian.

Batasunaren auzia garai honetakoa dugu. Arantzazuko bileran, 1968 urtean, parte hartu zuen eta euskara batuaren zabaltzaile eta defendatzaile izan zen. Grafia h-duna eta guzti bere izkribuetan mugaz honaindian lehenik erabili zuenetako bat. Orduko berotasunean Sebero Altube maisu zaharra atzerritik Euskal Herrira etortzeko proposatu eta batasunaren gaineko hainbat batzar eta bileratan parte hartu zuen.



Alfonso gai-jartzaile

BERTSOLARI TXAPELKETAK ETA BESTE

Alfonso Euskaltzaindian lanean ari zeneko garaia da gerraostean lehendabizikoz bertsolarien txapelketak eratzen hasi zena. Honelaxe aitortzen du Alfonsok: «Bertsolarien txapelketak 1958garren urtean hasi nituen Bilbon Euskaltzaindiaren izenean eta hori izan zen dudarik gabe Euskal Herri osoan euskaldun xehearen gogo gehien biztu zuena, urrengo urterako sistema bat eratu baitzen beheko mailatik hasi eta Euskal Herri osoko txapelketa nagusira azkenerako heltzen zena. Lehenik Bizkaian egin zen. Urkiolan hasi zen San Antonio egunez euskaldun asko ta asko bildurik eliza aurreko zelai zabalean.»



Gai-jartzaile ari zeneko bertso-gaiak



Bazkalorduan emazte eta euskaltzainkideekin

«Gipuzkoako Eibarren izan zen, oraindik sistema hori finkatu gabe, bertan prestatu zen Euskaltzaleen Biltzarraren ondoren. Horretarako parte hartuko zuten bertsolari guztien izenekin kartel handi bat egin zen eta Gipuzkoako eta Bizkaiko herri guztietara zabaldu zen korreo zabalirik, taberna ta jendea bildu zitekeen leku guztietara, denak ikusteko moduan ipintzeko eskatzen zitzaiela (...)». Zehaztasun hauek eta gehiago ere ematen ditu *Sorterriaren alde* liburuan eta gainerako lanetan. Alfonso txapelketa-eratzailerik ez ezik, gidari edo gai-jartzaile ere ibili zen 1967 urtera arte. Gidari-lanetan ezagutu zuten bertsolari zein bertsozale gehienek gogoan izango

dute bertso-gaia berriz agertzean esaten zuen harako «berriz diot» hura. Alfonso bertsolariekin ibili zen garaia beti estimatu zuen, eta gaztetako ibilera haiek oroitzapen ederreko ikasbide izan zitzaizkiola zioen. Poesiarako joera ere bertsolariekin ibiltzetik sortu zitzaion, berak aitortzen duenez. *Auspoa* liburutegiko aleak irakurtzen dituenak garai hartako argazki, pasadizo, zein bertso-gaiak ikus ditzake. Hainbat liburutan aurkitu daitezkeen arren, hona hemen zenbait *Bertsolari Txapelketa* (1965-1-1) *Auspoa* 43, *Bertsolari Txapelketa* (1967-VI-11) *Auspoa* 67, *Bertsolari txapelketa nagusia* (Donostia, 1980-1-6) *Auspoa* 141, *Bertsolarien desafioak guduak eta txapelketak* *Auspoaren* sail nagusia 10. zenbakia. Uztapideren *Lengo egunak gogoan I eta II*, eta hainbat gehiagotan ere.

Alfonsoren ekintza kulturala ez zen mugatu Bilbon Euskaltzaindian lanean ari zela, era bateko zein besteko euskal lanak argitaratzera, zein bertsolariekin eratzailerik eta gai-jartzaile izatera. Bilboko literatura-mugimenduko tertulietan, esaterako, Gabriel Arestirekin batera parte hartu zuen. Garai hartan Basaldua, Vidal de Nicolás eta Julio Maruri ere solaskide izan ohi ziren literatura-batzarretan. Ibilera horien lekuko dira beraren

autobiografiako zenbait pasarte eta artikulu ere.

Salamankara joan aurreko ahalegin bat da, era berean, Bilbon zabaldu zen lehen ikastolaren ofizialtasun-baimena lortzea. Hona beraren hitzak S. A. (73-74 or.): «Ez ditut aipatu gabe utzi nahi Salamankara joan baino lehen Bilbon ikastola ofizialki zabaltzeko egin nituen ahaleginak. Ordurako izkutuan ari zen. Haseran Euskaltzaindira agertu zen Isidro Beristain ea talde bat egin zitekeen eta

Euskaltzaindiaren etxean hasi zen lekua eta modua bilatu arte. (...) Luzaro ibili nintzen joan etorrietan pazientzia harturik. Ezezkorik ez nuen hartzen, baina luzatu egiten zen (...). Handik bost egunera telegrama bat etorri zen ene izenean, nik neuk firmatua joan baitzen haseratik eskabidea, eta honela zion: “Autorizado funcionamiento legal Colegio Resurrección Maria de Azkue” eta Boletín Ofizialean agertu zen behar bezala».



Txapelketa batean gai-jartzaile

SALAMANKARA IKASLE ETA ONDOKOAK

Euskaltzaindiko lanak alde batera utzi eta Salamankara joateko erabakia hartzen du Alfonso Irigoienek. Honelaxe aitortzen du berak *Sorterriaren alde* 54 or.: «Estudio oficialak egitea ez nuen 1962garren urterarte erabaki, lehenago inoiz pentsatu izan banuen ere. Orduan batxilleratoko asignatura guztiak banan banan, beherengo mailatik hasirik, egin behar nituen eta horrek atzeratzen ninduen. Bainan ausartu nintzen halako batean eta baita egin ere. Orain askozaz ere erraztasun handiagoak ematen dituzte unibertsitatean sartzeko ogei ta bost urte baino gehiago izanez gero. Baina nik ez nuen harrapatu». Alfonso, beraz, Salamankara joan zenean ikasle heldua zen hogeitamabi-hamairu urtekoa. Salamankan euskaldun ikasleen artean ikaskide eta lagun izango du, beste euskaldun batzuen artean Iñaki Usabiaga, eta, irakasleen artean, Koldo Mitxelena. Behin baino gehiagotan entzun diogu Salamankan ikasle izandako garaia onuragarri eta ongarri izan zitzaiola. Hona haren hitz idatziak (*Sorterriaren alde* 56 or.): «Sekula ez naiz damutuko Salamankan egin nuen egotaldiaz eta urte haretako oroimen ederra



Euskararen gaineko era bateko eta besteko ikerketak



bihotzean sartua dut. Ene sosegurako gauza hoberik ez nuen aurkituko. Urte hura ez nuen alperrik galdu ezta gutxiagorik ere. Hara joan nintzenean ezagutu berria nuen ene emaztea dena. Salamankara joatearekin ordurarteko ekintza sortzaile aroa moztu nuen ene bizitzan. Harrezkero beste aro bat zabaldu da enetzat, estudioari sendoago ekitekoa». Salamankan Filosofia eta Letren ikasketa-saileko Filologia Klasikoak egin zituen.



Hil ondoren argitaratutako lan bat

Euskaltzain oso 1963ko maiatzean izendatu zen, nahiz eta sarrera-hitzaldia 1974 urteko ekainaren 15ean irakurri, Done Miliaga Kukullakoan «Done Miliaga Kukullakoa eta euskara» izenburua zuela. Lan hau euskal glosen mila urtekari irakurri zuen Alfonsok. Lan zehatz bezain dokumentatua, gerora argitara emango zituenen lorratzekoa. Salamankatik etorri zenean Deustuko Unibertsitatean Euskal Linguistika ematen hasi zen. Bizkaiko Diputazioak Euskal Katedra bat sortu zuen eta harrez gero katedradun jardun zuen eskolak eman eta etengabe ikertzen. Gotzon Garateren ekintzaz Euskal Filologia sortu zenean, euskal testuak ematen ezagutu dugu beraren ikasle zein irakaskideok. *Euskal testuak* izeneko ikasgaiari, hasi Akitaniako inskripzio zaharretarik, zein 1596ko *Refranes y Sentencias*, zein autore zaharren adizki, zein morfologiako hainbat zehaztasunez hitz egiten zuen. Ikuspuntua berezia zen, bere-berea, ez bestek esana errepikatzen makurtzen zena, bere ikuspuntu hausnartua eta ondorioztatua baizik.

HELDUTASUNeko IKERKETA ESPARRUAK ETA ASMOERAK

Hainbat alorretako lan zientifikoak burutu zituen Alfonsok. Zenbait sail izendatuko bagenitu, Gramatika historikoa, Morfologia, Sintaxia, Antroponimia, Onomastika, Toponimia eta Lexikografia irateke. Testu zaharren aurkitzaile eta argitaratzaile ere izan zen. Zenbait sailetan azken urteotan izan dugun autoritate nagusia izan dela aitortu beharra dugu. Toponimia, Antroponimia eta Onomastika alorretan, esaterako, aho batezko autoritatea izan du. Europa



mailako PatRom, Patronimica Romanica erakundeko kidea izan dugu. Alfonsok han-hor-hemen argitara eman zituen lan filologikoak *De re philologica linguae uasconicae* liburu sailean bildu zituen. Lehen liburua fotokopia bilduma gisakoa izan zen, eskuz idatzitako aurkibide eta guzti. Behin bigarren liburutik aurrera, liburu berri bakoitzari erromatar numerazioa jarri zion. Liburu guztiei titulu bera ezarri zien, liburu bakar baten jarraiera balitz bezala. Gure artera iritsi zen azkenaren zenbakia V zen, 1995ean. Asmoera bera bide zuen bere gainerako lanekin ere, 1994an, fotokopia-bilduma enkuadernatu bat banatu baitzigun *Studia anthroponymica et toponymica* esku-letrazko aurkibideduna. *De Re philologica* saileko bost liburuetan guztira ehun artikulu-lan baino gehiago biltzen dira. Artikuluak batez ere filologia-esparrukoak dira, hor dugu, esaterako, «Haur ola zirola. Elementos deícticos en lengua vasca» maisu-lana, bere intuizio, zein dokumentazio-lan handia bateratzen dituen lan sendoa. Badira, era berean, berak ezagutu zituen euskal idazleen nortasun, zein sorkariez ari diren lanak ere. Eman ditzagun, kasurako, lehen aleko zenbait adibide: «Jon Miranderen literaturazko hizkuntzaz» edo «Gabriel Aresti zenaz» edo kritika-

-lan zorrotzak «Gabriel Aresti y la poesía según Atienza». Aipagarriak dira edizio apartekoetan argitara zituen beste zenbait lan hauek ere toponimiaren gainean: *En torno a la toponimia vasca y circumpirenaica*, Bilbao 1986 eta *Observaciones en torno a la obra Toponymie Basque de Jean-Baptiste Orpustan*, Bilbao 1990. Aditzaren garapenaz *En torno a la evolución y desarrollo del sistema verbal vasco*, Bilbao 1985. Liburu hauek guztiak beraren fotokonposizio-eta edizio-ardurapean argitara ematen zituen.

Deustuko Unibertsitatean atera zituen bere bi azken liburuetakoak *Pertsona-izenak euskaraz nola eman: (eta exotoponymiaz eraskin bat*, Bilbo 1994 eta *Kultura-hitzak euskaraz: (lexikon culturale) et nomina exonomastica scribendi forma in lingua vasconum*, Bilbo 1995. Euskal izenen gainekoen liburua, azken finean bizitza osoan egindako datu-bilketa eta luzaroan umatutako ondorioez hornitutako lana. Liburu hau atera baino lehen aurretik hainbat saio egin eta artikulu atera zituen pertsona-izenen gainean.




Bere aitari egindako erretratua



Libe eta Eneko ama-semeak

Gaztetan Euskaltzaindian lanean ari zela publikazio mailan lan ugaria egin bazuen ere, bere bizitzako azken urteetako artikulu zein liburu-ekoizpena oparoagoa izan zen. Bilbora iritsi berri ziren lehen konputagailuetako baten jabe egin zen, hasiera hartan. Alfonso beti agertu zen horretan ere berrizale eta aurrerazale. Informatizatzeak, Macintosh baten jabe egiteak, datuak errazago ordenatzeko bidea eman zion. Artikuluak egiten hasi eta datu gehiagorik gerora hornitzekotan eta buruan ondorioak garatzeko bidean, hainbat lan utzi zituen erdi eginean, argitara gabe. Azken aldian agertu zuen lan-kopuru erraldoiak agertu-asmo zuenaren tamaina edo neurria eman dezake. Itsasoko uretan agertzen den iceberg edo izotz-mendiaren tamaina ez da, ur-azaletik gainera zeruratzen den begi-bistako pusketarena bakarrik, itsaspean gordean murgildurik dagoen zati zortzi aldiz handiagokoarena baino.

Bizitzaren azken urteetan, Yakintza Baitha elkartearen kide sortzaile izan zen Federiko Krutwig eta Juan Jose Pujanarekin batera. Alfonsok bere itzalpean eta hegapean, Euskal Herriko mendebaldean, 1992 urtetik aurrera euskararen gainean kezkatua zegoen lagun talde bat eratu zuen. Hilean behin batzartzen zen euskaltzale talde honek *Mendebalde Kultur Elkartea* sortu zuen. Arautegia bera, Lapurdiko euskara kutsukoan erredaktatua, Alfonsok idatzi eta guztion artean onartua izan zen. Behin bost urtean batzarrak egin ondoren, 1997an, lehen jardunaldiak eratu ziren jardunaldietako esankizuna liburu batean bildu zen: *Mendebaldeko euskara xx. mende goienean*. Jardunaldiak zein liburua, elkarteko zuzendari izan zen Alfonso Irigoieni eskaini zitzaizkion.



ALFONSO PINTATZAILE ETA ESKULTORE

Alfonso Irigoien irakasle izan genuenok haren marrazteko dohainen berri eman dezakegu. Azterketa egiten buru-belarri ari ginelarik, lehen errazkadan jartzen ginen ikasleoi lapitzezko zirriborro edo apunteak egin ohi zizkigun. Baita behin azterketa egin ondoren guri eskuzabal eman ere, irudi-oinean bere izenpea zuelarik. Noiznahi lapitzez marrazteko ohitura zuela ezagutu dugu Alfonso. Bertso-txapelketetako epaimahaikoa zela ere, txapelketan berean bertsotan ari ziren bertsolarien lapitzezko irudi bat baino gehiago kontserbatzen da. Bertsolariak bihotz eta arima bertso-kantuan ari zirela epaimahaiko bat marrazkiak egiten ibiltzea kritikatu izan da, erabateko arreta bertsoari eskaintzen ez diola argudiatuz. Nik buruan josia dudana bere azken gomuta-irudi bat, hil aurretikoko aste batean, fakultatean batzarturik ginelarik, lapitzez irudiak egiten ziharduenekoa izango da. Alfonsoren pintura-zaletasuna, ezagutzen dugun haren lehen zaletasuna da, inolaz ere. Alfonso artista, Alfonso filologoa baino lehenagokoa da. Euskal erakundeetan hara-hona ibiltzen denak erraz aurkituko du Alfonsoren lapitz-irudi, zein pinturaren bat. Euskaltzaindiko


irakurle-gelan, esaterako, hor dago hormaren apaingarri, bertsolari-txapelketa bateko lapitzezko irudia. Deustuko Unibertsitateko Euskal Liburutegian Andres de Mañarikuaren oleozko irudia eskegirik zegoen, tonu moreetan egin. Alfonsoren lapitzezko irudirik ezagunenetakoa Sebero Altuberen erretratua dateke. Delako erretratu hori Zarauzko Olerti Etxe-ko hitzaldi-gelako aurrealdean aurkitzen da Leopoldo Zugazak bere bildumatik hara eramanez. Sebero Altuberen



Sebero Altube



Euskaltzaindikoko biltzarkideei egindako irudia



azken argitaraldiko *Erderismos* liburuko azaleko irudi bera, hain zuzen. Irudi lapitzezko hori, Sebero Altuberen zahartzarokoa dugu, erbestetik etorri eta harakoa. Orixeren erretratua ere egiteko asmoa zuela, hil zen, guztion zorigaitzerako, nafar idazlea. Han-hor-hemen sakabanaturik dauden haren irudiak gehiago dira, zalantzarik gabe, baina holako zehaztasunekin jarraitu baino lehen eman ditzadan zenbait oinarritzko berri.

Bilboko Arte eta Ofizioen Eskolan sartu zen 1941. urtean eta hiru urtez ikasi zuen dibujo edo marrazkigintza, eta hiruretan lehen saria irabazi zuen. Azken kurtsoa Reprodusio-Museoan egin zuen, gaur egun Justizia Jauregia dagoen eraikuntzaren azpialdean. Alfonsok bere lanen bakarkako bi erakusketa egin zituen, bata Artesania Bilbao 1961 urtean, eta bestea, Bizkaiko Kaxaren salan 1971 urtean.

Bakarkako erakusketa hauek baino askozaz lehenagokoa da 1951n, hogeita bat urte bakarrik zituela, Artesaniako sala zabaletan Ariño, Barceló, Ibarrola, Murga, Perez, Sota, Toja eta Zelaiarekin batera egindako erakusketa taldekakoa. Hona Alfonsoren lumaz *Sorterriaren alde* liburutik (24-25 or.) guzti honen argigarri: «Gauetan lanean sartu baino lehen hasirik, hiru urtetan Arte eta Ofizioen Eskolara joan izan nintzen dibujo ikastera 1941garren urtetikaurrera hiru urteotan lehen saria irabazi nuen (...) Ni joan nintzenean ez zen pinturarik egiten gerra aurrean bezala ta gero 1944garren urtearen azken aldera neure kontura hasi nintzen (...) Igande eta jai egunetan paisajeak pintatzera joaten nintzen alde batera edo bestera.»

Biblioteca: Pintores y Escultores vascos de ayer, hoy y mañana saileko 147. zenbakian Alfonso Irigoienek gaineko liburuxka monografiko bat dago. Alfonsoren hainbat oleoren argazkiez gainera, Luis Lazaro Uriarte eta Manuel Llano Gorostizaren berariazko bi testu ere biltzen ditu lan honek. Hona hemen agertzen dituen oleoen zerrenda: 156 or.

Autoerretatua (25 × 22 cm), *Gogoeta* (53 × 43 cm) eta *Irakurtzaileak* (38 × 43 cm); 157 or. *Ene aitaren erretraua*, (65, 5 × 56, 5 cm); 158 or. *Pailasoak* (triptikoa 31 × 25 cm), *Etxeko bazterra* (50 × 27 cm) eta *Basurtu gaineko etxeak* (36 × 27 cm); 159 or. *Mailua eta kikerak oria* (45 × 54 cm) eta *Mailua, koloreak eta liburuak* (48 × 56 cm); 160 or. *Deustu Olabeagatik* (30 × 25 cm), *Zokoa* (37 × 24 cm) eta *Etxe zaharra erreka ondoan* (18 × 34 cm); 161 or. *Boluetarako zubia* (45 × 36 cm), *Meatza* (53 × 45 cm), *Limoia ta eukaliptu orriak* (52 × 34 cm) eta *Fabrika arteko presa* (53 × 45 cm); 162 or. *Abstraktoak* (29 × 22 cm) hiru lauki, *Pailasoa* (29, 5 × 21 cm) eta *Ene seme Eneko* (32 × 23 cm); 163 or. *Peñara begira* (29 × 44) eta *Basurtuko etxeak* (40 × 40 cm); 164 or. *Deustuko elizpea gauez* (29 × 25 cm), *Boluetara doan zubia* (45 × 37 cm), *Limoia, eukalitu eta pitxarra* (66 × 55 cm) eta

Pinuartea (29 × 26 cm); 165 or. *Txapelaren azpiko gizona* (54 × 46 cm); 166 or. *Pailasoak* (triptikoa 28 × 24 cm) eta *Botila eta eukaliptu orriak* (46 × 56 cm); 167 or. *Peñako eliza eta etxeak* (48 × 57 cm), *Gurutzezikatua* (56 × 47 cm) eta *Limoiak, eukaliptu orriak eta pitxarra* (58 × 50 cm); 168 or. *Fraileak* (57 × 51 cm) eta *Mailuaren golpez* (49 × 57 cm); 169 or. *Peñako eliza eta inguruko etxeak* (55 × 48 cm), *Autoerretatua* (55 × 47 cm), *Aurpegia* (22 × 16 cm) eta *Itsua* (56 × 44 cm); 170 or. *Pailasoak* (triptikoa 46 × 54 cm) eta *Mailua ta pitxarra* (46 × 54 cm); 171 or. *Gaua Torremadariagan* (47 × 54 cm), *Ametsa* (24 × 18 cm), *Abstraktoa* (29 × 22 cm) eta *Ametsa* (22 × 16 cm); 172 or. *Libe eta Eneko ama-semeak* (64 × 52 cm), *Bilboko ibaia Axpen* (34 × 26 cm), *Mutikoa* (54 × 47 cm) eta *Peñako etxeak uraren ispiluan* (55 × 46 cm); 173 or. *Aulestira begira* (63 × 51 cm).

Hemen zerrendatu ditugun laukiak ez dira Alfonsoren produkzioko zati bat baizik. Lauki hauek guztiek orrialde hauetan ezin eskaini diegun iruzkin luze bat merezi lukete. Hala ere iruzkin bat edo beste egingo dugu. Pailazoen laukiak guztira bederatzi dira. Hiruna laukiko hiru sailetan. Serie hauetan espresionismoan dagoke bere pintura merituetako bat. Deustuko Unibertsitateak atera zuen Alfonsoren omenezko bi liburu-azaletan, bere pintura-lauki bat jarri zitzaion, autorretratu baten argazkiaren aurkia eta ifrentzua, filologo-pintatzaile edo pintatzaile-filologoaren omenetan. Alfonsok, itxurak direnez, pinturatik eskulturara egin zuen jauzi, batez ere brontzezko irudietara, lapitzezko marrazkigintza noiznahikoa inoiz ere baztertu ez zuela.



Azken lan literarioak eskaintza-hitzak eta guzti



Pailazoak

LITERATURA LANA: OLERKIA ETA HITZ-LAU

Alfonsoren sorkuntza-lana bitarikoa dugu, hitz neurtuzkoa eta hitz lauzkoa. Hitz lauzkoetan badu, alde batetik, gorago esan dugun pintura-liburuxka bat, *Biblioteca: Pintores y Escultores vascos de ayer, hoy y mañana* osatzeko, liburuxka-apailatzaileek edo arduradunek eskatu zioten bere autobiografia labur bat. Liburuxkarako autobiografia laburra uste baino luzeago atera zitzaion Alfonsori eta Kriseilu elkarteak argitara zion, 1976an egilearen autorretratu zuela. Liburuaren izenburua: *Sorterriaren alde ene artearen iturriak eta bizitzako zenbait ditzira*. Bere bizitza ironia fin batez kontatua da. Guri liburu hau baliagarri suertatu zaigu Alfonsoren hainbat datu bere lumatik hara baliatzeko. Ironia eta zorrotz-aire hau Alfonsok bere polemika-artikuluetan zein kritiketan erabiliko zuen berbera dasta daiteke lan horretan. Hitz neurtu eta hitz lauzkoa dugu *Hi ta ni garade zu, to ez date no lana*, (1989). Hitz neurtuzkoak *Herrian gara bizi* (Leopoldo Zugaza 1979), *Orbel eta orri* (1980). Liburu hauetako sorkariak baino lehen baditu lehenagokoak ere, sariak eta guzti jasotakoak. Hiru sari jaso zituen gaztetan, 1966 urtean, esaterako, «Premio Nacional de

poesia Universitaria» eta 1967 urteko apirilaren 23an lore Bilboko Udalak eratutako Lore-jokoetan. Olerki saritua *Olabeagatik* poema izan zen. *Orbel eta orri* ere 1980 urteko Felipe Arrese Beitia sariduna izan zen.



Dimako idazle Santi Onaindiarekin

Alfonsoren hitz laua bitarikoa dela esango nuke, batetik gorago aipatu dugun kutsu ironiko eta testimoniala, bere autobiografiari dagokiona, eta, bestetik, bere bizitzaren azkenerantz eskaini zigun prosa poetikoa. Prosa poetiko hau, bere hitzetan «lyrika pentsamenduzkoak» dira, Ulises eta haren ibilerak oinarri harturik. Prosa hau ere ezin esan dezakegu autobiografikoa ez denik, prosazko monologoetan bere burua aurkezten baitigu, bere eldarnio eta ametsen berri emanik. Hona nola dioen berak: «Erdi ametsetan poema bat egiten ari izan naiz eta neure buruarekin topo egin dut» (1989 b, 9, 55). Prosa honetan, bere azken poesian bezala, mundu bi edo literatura bi elkartzen dira, Grezia klasikokoa, eta, Barandiaranek eta abarrek bildu zuten euskal mitologiakoa. Hona adibide gisa berak maite zuen bere hamalaukoetariko bat:



Jaia

Errekastoko gure lamina lirain,
kantatzen aditu haut eta lyra jorik
Anboto-ko haitzulo-palaziorik
ederrena Olympo bihurtu dun fin.

Basajauna dantzari ta musikorik
hoberena hi, rhytmo bikainen jole,
Mariurrika denon bide-jagole,
Akropoleos eta Ulyseskorik

ez dela bertan falta beha egole,
zulo sakonean adi dagoen
Orpheo musikoak mila kolore

entzuten dituela, laster datorren
Eguzki jainko jaunak kreatzailezko
diz diz apain-ederra azkar dakarren.

Alfonsoren azken literatura-joerakoa da, hona ekarri dugun hamalauko hau. Lehenagoko poesiaren gaiak askotarikoak dira. Umetako bizierak, herri-minezkoak. Luze joko liguke ezaugarri guztiak xehero azaltzeak. Hona hemen adibide gisa berak maite zuen aleetako bat:

Gernika



Uri bat dago Bizkaian,
zauri bat dauka sustraian
metrallaz bere matraillan
egiña suzko garaian.

Badira Alfonsoren sorkuntza-lana aztertu duten ikerlariak. Anjel Zelaietak bere hitz neurtuen gaineko lana egin zuen. Joan Otaegik prosa poetikoarena.

OMENALDIAK

Alfonsok bere azken urteetan, bizitza osoan kulturaren alde egindako lan eskerga eta etengabeagatik, esker oneko zenbait omenaldi izan zituen. Bertsolariek, 1993an, Aita Santi Onaindia eta Alfonso Irigoieni beren omenaldi bihozitia eskaini zieten. 1996 urteko uztailaren 12an, Alfonso hil zen urte berean, Derioko XXVII Udako Euskal Ikastaroak gorazarre hunkigarria eskaini zion. Hizlariak Abel Muniategi, Adolfo Arejita, Juan Jose Pujana eta Ander Manterola izan ziren.

Hil ondorenean Deustuko Unibertsitateak bertako irakasle maitatuari askotariko omenaldi eta esker-emateak egin zizkion. 1997ko apirilean «Alfonso Irigoienek ekarriaz» titulupeko mahaingurua eratu zen Deustuko paraninfoan. Hango jardunaldiko testuak *Enseiukarrean* aldizkariko 13. zenbakian argitara ziren. Hil eta lehenengo urtean Alfonsoren lan sortarik bikain edo umatuenak argitara ziren *Opera selecta* deitu liburuan. Heriotzaren bigarren urtean haren irakasle-lagunek, herri zein erbestekoek, berak jorratu zituen ikerbideetatik lan-sorta ederra eskaini zioten. Mendebalde Kultur Elkartek ere, bere lehen jardunaldietako *Mendebaldeko euskara xx. mende goienera* liburua, Alfonso Irigoieni eskaini zion, liburuaren atarian «Anbotopean» olerkia agertzen zuela.



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Azkue Biblioteka*
- *José Luis Villar argazkilaria*
- *Foto Pemán*

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	1.a., 1999ko azaroa
Ale-kopurua:	2.000
©	Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Donostia-San Sebastián, 1 -01010 Vitoria-Gasteiz
Fotokonposizioa:	Ipar, S. Coop. Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao
Inprimaketa:	RGM, S.A. Padre Larramendi, 4 - 48012 Bilbao
ISBN:	84-457-1440-6 (Obra osoa) 84-457-1442-2
L.G.:	BI - 2.676-99

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística